BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA
2019/06/27

# Unai Rementeria jeltzalea aukeratu dabe barriro Bizkaiko Ahaldun Nagusi

Unai Rementeria Bizkaiko Ahaldun Nagusi aukeratu dabe gaur Gernikako Batzarretxean egin dan Osokoan, lehenengo bozketan lortutako gehiengo osoz. Euzko Abertzaleak taldea eta Euskal Sozialistak taldea, Unai Rementeria Bizkaiko Foru Aldundiko ordezkari goren barriro izatearen alde agertu dira. Rementeriak bigarren agintaldia beteko dau lurraldeko Ahaldun Nagusi moduan, 2023ra arte. Haserea emon jako holan EAJ-PNV eta PSE-EE taldeen arteko koalizino foru gobernua errepikauko dauen agintaldi barriari.

Arautegiak marketan dauen moduan, bozketea sekretua izan da. Rementeriak 32 boto lortu ditu, eta Bizkaiko Ahaldun Nagusi izateko beste hautagai biek aldeko 10 eta 6 boto lortu ditue, hurrenez hurren: Bea Ilardia (EH Bildu) eta Eneritz de Madariaga (Elkarrekin Bizkaia). Ordezkari bi dituan Talde Berezia/PP Bizkaia, abstenidu egin da.

Emaitzea iragarri ostean, Ana Otadui Bizkaiko Batzar Nagusietako Lehendakariak Foru Gobernuko arduradun nagusi izentau dau Unai Rementeria. Galaz jantzitako mazukari bi aurretik joiazala, Batzar Nagusietako Mahaiak eta Ahaldun Nagusiak Osokoen Aretoaren kanpoaldera urten dabe.

Gernikako Arbolaren ondoko tenpletean, Bizkaiko Ahaldun Nagusiak zin egin deutso karguari, Foru Zaharraren aurrean, Agirre Lehendakariak erabili eban formula tradizionalari jarraituz: “Jainkoaren aurrean apalik Bizkai-lur gainean zutunik asaba gomutaz Gernikako zuhaitzpean neure agindua ondo betetzea zin dagit”.

“Zuganatzen dozun erantzunkizuna ohorez eta zintzotasunez beteko dozula badakigu. Beraz, hartu egizu aginte-makila hau zure karguaren ezaugarritzat”, esan deutso Lehendakariak. Mundakako txistulariek “Agur Jaunak” interpretau dabe, Ahaldun barriaren ohorez, eta horren ostean Aurreskuaren eta batzargelan egozan guztien txalo beroaren bidez jaso dau omena, Osokoen Aretoaren barrukaldean.

## Gobernu taldea

Aginte-makilea jaso ostean, Ahaldun Nagusiak bere gobernu taldearen barri emon dau. Taldea honeek eratuko dabe: Ibone Bengoetxea, Herri Administrazino eta Erakunde Harremanetako Diputatua; Jose Maria Iruarrizaga, Ogasuneko Diputatua; Lorea Bilbao, Euskara eta Kulturako Diputatua; María Teresa Laespada, Enplegu, Gizarteratze eta Berdintasuneko Diputatua; Miguel Ángel Gómez, Garraio, Mugikortasun eta Lurraldearen Kohesioko Diputatua; Sergio Murillo, Gizarte Ekintzako Diputatua; Elena Unzueta, Iraunkortasun eta Ingurumeneko Diputatua; eta Imanol Pradales, Azpiegitura eta Lurraldearen Garapen diputatua, eta Ainara Basurko, Ekonomia Garapeneko Diputatua.

## Sei orduko eztabaidea

Osoko saioa 6 ordu baino gehiago luzatu da. Goizeko 09:30etan hasi da, hautagaien berbaldiakaz. Hautagai bakotxak 45 minutu euki ditu bere gobernu programea azaltzeko. Berba egiteko ordena, erregistroan hautagaia aurkeztu dan ordenak markau dau.

Osokoen Aretoko atrilera igon dan lehenengoa Unai Rementeria izan da, "gaur 30.000 lanbako gitxiago daukaguzala" azpimarratuz. Bere berbetan, datu hori "lau urte honeetako balantze onena" da. "Batuketak bidertu egiten dau, eta Alderdi Sozialistagaz batera, Bizkairako proiektu onena daukagu", adierazo dau. Rementeriak adierazo dauenez, 10 milioi euro bideratuko dira enplegu egonkorra eta kalidadekoa sortzeko plan berezi batera. "Ondo ikasi doguz krisiak emon deuskuzan lezinoak", gehitu dau hautagai jeltzaleak, eta, "Industriaren iraultzaren eta Guggenheimek eragin eban iraultzaren ostean Bizkaiko hirugarren iraultzea aktibetako" konpromisoa erakutsi dau.

Bere ostean, Bea Ilardia EH Bilduko hautagaiak hartu dau berbea, eta "Bizkaia duina eta orekatua lortzeko oraindino bide luzea daukagula" esan dau. Ilardiak enplegu askoren "kalidade txarra", baztertuta geratzeko arriskuan gero eta biztanle gehiago egotea, industria sarearen arazo estrukturalak, eta I+G inbertsino txikia azpimarratu ditu. "Erakundeek kontratazino duinaren eredu izan behar dabe", defendidu dau, Aldundirako behar egiten daben enpresen kontratu guztiak barrikustea proponiduz, 1.200 euroko gitxieneko soldatea bermatzeko".

Bere aurkezpeneko berbaldian, Eneritz De Madariagak "bizitzeko gura dogun" lurralde eta gizarte eredua azaldu dau, eta industrian eta nekazaritzan enplegua galdu izana, gizartean dagozan desbardintasunak, eta emakumeen eta gizonen arteko soldata arrakalea kritikau ditu. "Ez dago gizonen eta emakumeen benetako bardintasuna lortu dogun arlo bakar bat", esan dau Elkarrekin Bizkaia taldeko hautagaiak. Beste neurri batzuen artean, enplegu egonkorra eta duina bultzatzearen, gizarte zerbitzuak blindetearen eta turismo jasangarria eta kalidadekoa sustatzearen aldeko apustua egin dau.

## Taldeen txandea

Berbaldien ostean, talde bakotxak 30 minutuko txandea euki dau, bere eretxiak azaltzeko. Amaya Fernández Talde Bereziaren/PP Bizkaiaren bozeroaleak, zoritxarrez Bizkaian langabeziak tasa altuak dituala, industriak bultzadea galdu dauela eta kriminalidade indizeek gora egin dabela esan dau. "Nire taldeak konpromiso bategaz hasiko dau agintaldi hau: enplegua".

Elkarrekin Bizkaia taldearen izenean, Israel Escalantek bere taldeak "aberastasuna beste modu batera banatzeko" egiten dauen apustu argia azaldu dau, eta "kanpoko irudiak benetako errealidadeak baino gehiago" arduratzen dauela arpegiratu deutso talde jeltzaleari.

Ekain Ricok (Euskal Sozialistak) azpimarratu dauenez, herritarrek argi egin dabe berba hauteskundeetan, eta Aldundiko gobernuaren egonkortasunaren alde egin dabe apustu. "Sozialistek eta jeltzaleek, desadostasun asko daukaguzan arren, herritarren benetako arazoei konponbidea emoten deutsien ibilpide orria eskaintzen dogu", azpimarratu dau.

“Gizarteko arrakala gero eta handiagoa da Bizkaian”, esan dau Arantza Urkaregik, EH Bilduren izenean. Bardintasunerako Foru Araua bete ez izana eta Bizkaiko Gizarte Zerbitzuen Mapan izandako atzerapena penagarriak dirala esan ostean, Urkaregik gizarte zerbitzuen kudeaketa publikoaren eta fiskalidade barriaren aldeko apustua egin dau, beste neurri batzuen artean.

Jon Andoni Atutxak (Euzko Abertzaleak) esan dauenez, “ohore handia” da Unai Rementeria Ahaldun Nagusi izateko hautagaitzea aurkeztea. “Bizkaiari etorkizuna emoten jarraituko dugu”, esan dau, eta sozialistakaz koalizinoan, “konpartidutako lehentasunez osatutako programa sendoa” jarriko dabela martxan gehitu dau.

**Bozketea**

Atsedenaldi baten ostean, saioa 16:00etan hasi da barriro, Unai Rementeriaren, Bea Ilardiaren eta Eneritz de Madariagaren berbakaz. Horren ostean, Batzarretako taldeetako ordezkarien erantzunen txandea hasi da.  20 minutuko atsedenaldiaren ostean, bozketea 18:00etan hasi da. Batzarkide bakotxak kristalezko hautestontzi batean sartu dau bere boto sekretua. Ana Otadui Batzar Nagusietako Lehendakariak, Unai Rementeria barriro Bizkaiko Ahaldun Nagusi bilakatu dauen emaitzaren barri emon dau. Bere aurretik, kargu hori, Jose Luis Bilbaok, Josu Bergarak, Jose Alberto Praderak eta Jose Maria Macuak, demokraziako lehenengo Ahaldun Nagusiak, bete eben.

Gernikako Arbolaren aurrean ataratako argazkiak emon deutso amaierea lehenengo osokoagaz hasi dan jardunaldiari. Lehenengo osoko hori goizeko 09:00etan hasi da Batzarretxean, eta bertan aho batez (49 boto) onetsi da batzarkide bakar bat be ez dagola bateraezintasun kausan murgilduta egiaztetan dauen erespena.

**Ikusmin handia**

Hainbat ordezkari politiko hurbildu dira gaur Gernikako Batzarretxera, Ahaldun Nagusia izendatzeko Osokoa jarraitzeko. Batzarretako goiko solairuko jarlekuetan Itxaso Atutxa EAJ-PNVko Bizkai Buru Batzarreko Presidentea egon da, Ana San Nicolás, Humberto Perea eta Manu Tejada burukideagaz batera. EH Bildutik Marian Beitialarrangoitia taldeko sail instituzionaleko arduraduna, Iñigo Gaztelu Larrabetzuko Aca edo Maite Ibarra Arrigorriagako Alkatea egon dira. Bertan egon dira, baita be, Alderdi Sozialistako Mikel Torres Portugaleteko Alkatea eta Alderdi Popularreko Beatriz Calvo eta Ángel Rodrigo.

Bizkaiko Pentsiodunen Mobimenduaren ordezkariek be jarraitu dabe Osokoa goizetik, eta, ganera, kontzentrazinoa egin dabe Batzarretxearen kanpoaldean. Eta arratsaldean bertan egon dira Andoni Ortuzar Euskadi Buru Batzarreko Presidentea (EAJ-PNV); Pedro Azpiazu Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Ekonomia Sailburua; Miguel Zugaza Bilboko Arte Eder Museoko Zuzendaria eta Asier Atutxa Bilboko Portuko Zuzendari ohia, beste batzuen artean.

BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA
27/06/2019

# El jeltzale Unai Rementeria, elegido de nuevo Diputado General de Bizkaia

En el Pleno celebrado hoy en la Casa de Juntas de Gernika, Unai Rementeria ha sido elegido Diputado General de Bizkaia, por mayoría absoluta alcanzada en la primera votación. Los grupos Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos han apoyado la reelección de Unai Rementeria como máximo representante de la Diputación Foral de Bizkaia. Rementeria afronta, como Diputado General del territorio, su segunda legislatura, que se prolongará hasta 2023; un nuevo mandato en el que se reedita el gobierno foral de coalición de PNV y PSE-EE.

Como marca el Reglamento, la votación ha sido secreta. Rementeria ha obtenido 32 votos, frente a los 10 y 6 apoyos que han conseguido, respectivamente, las otras dos candidatas al cargo de Diputada General de Bizkaia: Bea Ilardia (EH Bildu) y Eneritz de Madariaga (Elkarrekin Bizkaia). Grupo Mixto/PP Bizkaia, que cuenta con dos representantes, se ha abstenido.

Anunciado el resultado, Ana Otadui, Presidenta de las Juntas Generales de Bizkaia, ha proclamado a Unai Rementeria máximo responsable del Gobierno foral. Precedidos por dos maceros vestidos de gala, la Mesa de las Juntas Generales y el Diputado General han salido al exterior del Salón de Plenos.

En el templete junto al Árbol de Gernika, el Diputado General de Bizkaia ha jurado su cargo ante el Fuero Viejo, siguiendo la fórmula tradicional utilizada por el Lehendakari Agirrre: “Jainkoaren aurrean apalik Bizkai-lur gainean zutunik asaba gomutaz Gernikako zuhaitzpean neure agindua ondo betetzea zin dagit” (“Humilde ante Dios, en pie sobre tierra vizcaína, en recuerdo de antepasados y bajo el Árbol de Gernika, juro desempeñar bien mi cargo”).

“Zuganatzen dozun erantzunkizuna ohorez eta zintzotasunez beteko dozula badakigu. Beraz, hartu egizu aginte-makila hau zure karguaren ezaugarritzat”, le ha dicho la Presidenta. Txistularis de Mundaka han interpretado “Agur Jaunak”, en honor al nuevo Diputado, que ha sido homenajeado después con un Aurresku en el interior del Salón de Plenos, y con un largo aplauso de todos los y las presentes en el hemiciclo.

**Equipo de gobierno**

Tras recibir el bastón de mando, el Diputado General ha anunciado que su equipo de gobierno estará formado por Ibone Bengoetxea, Diputada de Administración Pública y Relaciones Institucionales; José María Iruarrizaga, Diputado de Hacienda y Finanzas; Lorea Bilbao, Diputada de Euskera y Cultura; María Teresa Laespada, Diputada de Empleo, Inserción Social e Igualdad; Miguel Ángel Gómez, Diputado de Transportes, Movilidad y Cohesión del Territorio; Sergio Murillo, Diputado de Acción Social; Elena Unzueta, Diputada de Sostenibilidad y Medio Ambiente; Imanol Pradales, Diputado de Infraestructuras y Desarrollo Territorial, y Ainara Basurko, Diputada de Promoción Económica.

## Seis horas de debate

La sesión plenaria se ha prolongado durante más de 6 horas. A las 9:30 horas ha dado comienzo con los discursos de las personas candidatas, que han contado con 45 minutos para explicar su programa de gobierno. El orden de intervención se ha establecido siguiendo el orden de entrada en el registro de la presentación de la candidatura.

En primer lugar, ha subido al atril del Salón de Plenos Unai Rementeria, destacando que "hoy tenemos 30.000 personas menos en el paro", un dato que ha calificado como "el mejor balance de estos cuatro años". "La suma multiplica y junto con el Partido Socialista tenemos el mejor proyecto para Bizkaia", ha asegurado. Rementeria ha anunciado que destinará 10 millones de euros a un plan especial para crear empleo estable y de calidad. "Hemos aprendido las lecciones de la crisis", ha añadido el candidato nacionalista, quien se ha comprometido a "activar la tercera revolución de Bizkaia, tras la revolución industrial y la revolución del Guggenheim".

A continuación, ha intervenido Bea Ilardia, candidata de EH Bildu, señalando que "nos queda mucho trabajo por recorrer para conseguir una Bizkaia digna y equilibrada". Ilardia ha hecho hincapié en "la mala calidad" de gran parte de los empleos, en el aumento de la población en riesgo de exclusión, en los problemas estructurales de la red industrial y en la baja inversión en I + D. "Las instituciones tienen que ser un modelo de contratación digna", ha defendido, proponiendo la revisión de todos los contratos de empresas que trabajan para la Diputación para garantizar un sueldo mínimo de 1.200 euros".

En su discurso de presentación, Eneritz De Madariaga, ha expuesto el modelo de territorio y sociedad "en la que queremos vivir" y ha criticado la pérdida de empleo en el sector industrial y agrícola, el aumento de las desigualdades sociales y la brecha salarial entre mujeres y hombres. "En ningún área hemos logrado la igualdad real de hombres y mujeres", ha lamentado la candidata de Elkarrekin Bizkaia quien, entre otras medidas, ha apostado impulsar el empleo estable y digno, blindar los servicios sociales y fomentar el turismo sostenible y de calidad.

## Turno de los grupos

Tras estas intervenciones, cada grupo político ha contado con un turno de intervención de 30 minutos en los que han expuesto sus posturas. Amaya Fernández, portavoz de Grupo Mixto/PP Bizkaia, ha lamentado las altas tasas de desempleo de Bizkaia, la pérdida de empuje industrial y el aumento de los índices de criminalidad. "Mi grupo empieza esta legislatura con un compromiso: el empleo".

En nombre de Elkarrekin Bizkaia, Israel Escalante ha mostrado la apuesta clara de su grupo por "redistribuir la riqueza" y ha acusado al grupo nacionalista de preocuparse "más por la imagen externa que por la propia realidad".

Ekain Rico (Socialistas Vascos) ha subrayado que la ciudadanía ha hablado claro en las urnas, apostando por la estabilidad en el gobierno foral. "Socialistas y jeltzales, desde nuestras muchas discrepancias, ofrecemos una hoja de ruta que aportará soluciones a los problemas reales de la ciudadanía", ha recalcado.

“La brecha social es cada vez mayor en Bizkaia”, ha afirmado Arantza Urkaregi, en representación de EH Bildu. Tras lamentar tanto el incumplimiento de la Norma Foral de Igualdad como el retroceso en el Mapa de los Servicios Sociales de Bizkaia, Urkaregi ha apostado por la la gestión pública de los servicios sociales y por una nueva fiscalidad, entre otras medidas.

Jon Andoni Atutxa (Nacionalistas Vascos) ha calificado de “gran honor” presentar la candidatura de Unai Rementeria a Diputado General. “Vamos a seguir dando futuro a Bizkaia”, ha afirmado, añadiendo que, en coalición con los socialistas, pondrán en marcha “un sólido programa de prioridades compartidas”.

**Votación**

Tras un descanso, la sesión se ha reanudado a las 16 horas con nuevas intervenciones de Unai Rementeria, Bea Ilardia y Eneritz de Madariaga. A continuación, ha comenzado el turno de réplica de los y las portavoces de los grupos junteros.

Tras un receso de 20 minutos, la votación ha comenzado a las 18:15 horas. Cada apoderado y apoderada ha depositado su voto secreto en una urna de cristal. Ana Otadui, Presidenta de las Juntas, ha anunciado el resultado que ha convertido de nuevo a Unai Rementeria en Diputado General de Bizkaia, un cargo en el que le han precedido José Luis Bilbao, Josu Bergara, José Alberto Pradera y José María Macua, primer Diputado General de la democracia.

Una foto ante el Árbol de Gernika ha sellado una jornada que ha comenzado con un primer pleno, celebrado en la Casa de Juntas a las 9 horas, en el que se ha aprobado por unanimidad (49 votos) el dictamen que acredita que ninguna persona apoderada se haya incursa en causa de incompatibilidad.

**Gran expectación**

Representantes políticos se han acercado hoy hasta la Casa de Juntas de Gernika para seguir el pleno de investidura del Diputado General. En la bancada del piso superior del hemiciclo se han sentado Itxaso Atutxa, Presidenta del Bizkai Buru Batzar de EAJ-PNV, junto a burukides como Ana San Nicolás, Humberto Perea y Manu Tejada. De EH Bildu han acudido Marian Beitialarrangoitia, responsable del Área Institucional de EH Bildu; Iñigo Gaztelu, Alcalde de Larrabetzu, o Maite Ibarra, Alcaldesa de Arrigorriaga. Han estado presentes del Partido Socialista Mikel Torres, Alcalde de Portugalete, y del Partido Popular, Beatriz Calvo y Ángel Rodrigo.

También han seguido la sesión plenaria por la mañana representantes del Movimiento de Pensionistas de Bizkaia, que han protagonizado además una concentración en el exterior de la Casa de Juntas. Y por la tarde, han asistido Andoni Ortuzar, Presidente del Euskadi Buru Batzar; Pedro Aspiazu, Consejero de Hacienda y Economía del Gobierno Vasco; Miguel Zugaza, Director del Museo de Bellas Artes de Bilbao, así como Asier Atutxa, ex Director del Puerto de Bilbao.